

6. eranskina: Giza Eskubideak
Irabazi xederik ez duten entitateentzako
dirulaguntzak - 2026

Anexo 6: Derechos Humanos
Subvenciones a entidades sin ánimo de lucro - 2026



AURKIBIDEA

1. Xedea.....	3
2. Onuradunak.....	5
3. Eskaerak.....	5
4. Dirulaguntzaren zenbatekoa.....	5
5. Eskaerak baloratzea.....	7
6. Izapidetzea.....	10
7. Ebazpena.....	11
8. Ordaintzea.....	11
9. Dirulaguntza zertan erabili den justifikatzea.....	11
10. Aurrekontua.....	12
A-Eranskina: PROIEKTUAK BALIOESTEKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA.....	13
ENTITATE ESKATZAILEARI BURUZKO INFORMAZIOA.....	13
DIRUZ LAGUNTZEKO ESKATU DEN PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA	14

ÍNDICE

1. Objeto.....	3
2. Entidades beneficiarias.....	4
3. Solicitudes.....	4
4. Cuantía de la subvención.....	5
5. Valoración de las solicitudes.....	6
6. Instrucción.....	10
7. Resolución.....	10
8. Abono.....	11
9. Justificación del destino de la subvención.....	11
10. Presupuesto.....	12
Anexo-A.- INFORMACIÓN RELEVANTE PARA VALORAR LOS PROYECTOS.....	13
INFORMACIÓN SOBRE LA ENTIDAD SOLICITANTE.....	13
INFORMACIÓN SOBRE EL PROYECTO PARA EL QUE SOLICITA SUBVENCIÓN.....	14

Dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak, bakearen, giza eskubideen eta memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeetarako.

Donostiako Udala hainbat atal eta programaren bitartez irmo eta argi berresten ari da azken urteotan ahaleginak eta bi egiteko asmoa duela bakearen kulturen oinarritu eta inspiratutako gizarte bat eraikitzeko. Bakearen kulturen, Udalaren iritziz, bizitzari zor zaion errespetua, askatasuna eta giza eskubideak dira balio nagusi eta lehentasunezkoak.

Giza eskubideen alde lan egiteko konpromiso horren erakusgarri dira, halaber, onartu gabeko edo behar bezain agerian ez dagoen oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak eta donostiarrak kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak, aniztasuna errespetatzen dutenak, desberdintasunaren balioa onartzen dutenak, giza eskubideak eta askatasuna errespetatzea sustatzen dutenak, haien onarpena eta aplikazioa bermatzen dutenak, eta, besteak beste, Jokabide intoleranteak, sexistak, homo-les-transfobikoak, arrazistak, elkartzunetik gabekoak eta antidemokratikoak gairatzen laguntzen dutenak.

Donostiako gizarteak eginkizun nagusi eta ezinbestekoa izan du -ezin bestela izan- giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko lan etengabe honetan, bai erakundeek ekimenetan konprometitzen eta parte hartzen, bai gizarte zibilaren esparruan sortu eta gauzatutako gizartearen beraren ekimenak aurrera eramaten.

Hain zuzen ere, lan horretan parte hartzen duten gizarte eragileek gobernatutako ekimen eta proiektu horiek sustatzeko, aurreko urteetan bezala, laguntza ekonomikoak emateko deialdi hau abiarazi du Donostiako Udalak.

1. Xedea

1. Oinarri hauen xedea da Donostiako Udalak 2026ko ekitaldian eman ahal izango dituen dirulaguntzak eskuratzeko eta

Bases específicas reguladoras de la concesión de subvenciones a entidades sin ánimo de lucro que desarrollan actividades a favor de la paz y los derechos humanos y el rescate de la memoria histórica no reconocida o insuficientemente visibilizada.

El Ayuntamiento de San Sebastián, a través de diferentes departamentos y programas, viene afirmando en los últimos años, con rotundidad y claridad, su voluntad de no escatimar esfuerzos en la construcción de una sociedad basada e inspirada en la cultura de la paz, entendiéndola esta, como una cultura en la que el respeto a la vida, la libertad y los derechos humanos, sean los valores principales y prioritarios.

Este compromiso de trabajar por los derechos humanos se manifiesta también en su voluntad de impulsar proyectos que favorezcan el rescate de la memoria histórica no reconocida o insuficientemente visibilizada y acciones de concienciación y sensibilización de la ciudadanía donostiarra que favorezcan el respeto a la diversidad, reconozcan el valor de la diferencia, promuevan el respeto a los derechos humanos y las libertades, asegurando su reconocimiento y aplicación y contribuyan a la superación de conductas, entre otras, intolerantes, sexistas, homo-les-transfóbicas, racistas, insolidarias y antidemocráticas.

Como no podía ser de otra manera, la sociedad donostiarra está jugando un papel clave e ineludible en esta constante labor de defensa y promoción de los derechos humanos, tanto a través de su implicación y participación en las iniciativas institucionales, como liderando iniciativas propias creadas y llevadas a cabo en el ámbito de la sociedad civil.

Precisamente, con el fin de fomentar estas iniciativas y proyectos, liderados por los agentes sociales implicados en esta labor, el Ayuntamiento de San Sebastián impulsa, como en años anteriores, esta convocatoria de ayudas económicas.

1. Objeto

1. Es objeto de las presentes bases la regulación del acceso y concesión de subvenciones que el Ayuntamiento de San

emateko arauak ezartzea, honako zerrenda honen arabera:

6.1. eranskina. Dirulaguntzak ematea bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak zabaltzeko, eraikitzeko, sustatzeko eta defendatzeko proiektuei eta aniztasunarekiko errespetua eta zenbait portaera (besteak beste, intoleranteak, sexistak, homo-les-transfobikoak, arrazistak, elkertasunik gabekak eta antidemokratikoak) gainditzen laguntzen duten proiektuei.

6.2 eranskina: Oroimen historiko aitortu gabekoa edo behar bezain ondo bistaratu gabekoa berreskuratzen laguntzen duten proiektuak sustatzea.

Proiektuak 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira, Donostiako hirian, edo, bestela, Donostiaren interesekoak izan behar dute.

2. Bestalde, deialditik zehazki bazterturik daude ondoko hauek:

-Inbertsioa helburu duten eskaerak edozein kontzeptuagatik edo irabazteko asmoa duten ekintza edo jarduerak.

-Bazkideentzat bakarrik diren jarduerak.

-Beren edukiengatik eta helburuengatik udalaren beste deialdi batzuei dagozkien eskaerak.

3. Dirulaguntza horiek Donostiako Udalaren 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita daude, eta helburu estrategiko eta espezifiko hauek lortzen laguntzen dute:

Helburu estrategikoak:

- Elkarteen jarduera sustatzea.
- Giza Eskubideak sustatzea, guztion arteko bizikidetzarako oinarri gisa.

Helburu zehatzak: Erakundeen konpromisoa betetzea, hirian elkarte-jarduera sustatzeko eta honako hauen aldeko proiektuak eta jarduerak bultzatzeko:

- Giza eskubideak, bakea, bizikidetzeta eta biktimen aitortza.

Sebastián podrá otorgar durante el ejercicio 2026 con arreglo a la siguiente relación:

Anexo 6.1. Subvenciones a proyectos de difusión, construcción, fomento y defensa de la paz, la convivencia y los derechos humanos y a proyectos que favorezcan el respeto a la diversidad y contribuyan a la superación de conductas, entre otras, intolerantes, sexistas, homo-les-transfóbicas, racistas, insolidarias y antidemocráticas.

Anexo 6.2. Subvenciones a proyectos que promuevan el rescate de la memoria histórica no reconocida o insuficientemente visibilizada.

Los proyectos deberán desarrollarse, entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2026, en el ámbito de la ciudad de San Sebastián o ser de interés para la misma.

2. Quedan, por otra parte, específicamente excluidas de la convocatoria:

-Las solicitudes dirigidas a la inversión en cualquier concepto o aquellas acciones o actividades que tengan ánimo de lucro.

-Actividades que se desarrollen de forma exclusiva para las personas asociadas.

-Las solicitudes cuyo contenido y objetivos sean competencia de otras convocatorias municipales.

3. Estas subvenciones están previstas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de San Sebastián, contribuyendo al logro de los siguientes objetivos estratégicos y específicos:

Objetivos estratégicos:

- Promoción de la actividad asociativa.
- Fomento de los Derechos Humanos como base para la convivencia entre todos y todas.

Objetivos específicos: Cumplir con el compromiso institucional de promover la actividad asociativa en la ciudad e impulsar proyectos y actividades a favor de:

- Los derechos humanos, la paz, la convivencia y el reconocimiento a las víctimas.

- Aitortu gabeko edo behar bezala ikusarazi gabeko memoria historikoa berreskuratzea.
- La recuperación de la memoria histórica no reconocida o insuficientemente visibilizada.
- LGTBIQ pertsonen eskubideak ikusaraztea.
- La visibilización de los derechos de las personas LGTBIQ.

2. Onuradunak

Deialdi honetako laguntzak eska ditzakete legez eraturako irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitate pribatuek, egoitza, ordezkaritza eta jardun eremua Donostian izanez gero. Bestalde, halakoen helburuek, estatutu sozialek xedaturikoaren arabera, bat etorri beharko dute lehen oinarri espezifikokoetako lehen atalean adierazitako subentzionagarriekin, ezinbesteko baldintza dela haiek lortzeko prozedura guzti-guztiak baketsu eta demokratikoak izatea.

3. Eskaerak

Eskaerak oinarri orokorretako 4. eta 5. artikuluetan xedaturikoa bete beharko dute.

Dirulaguntza hauetarako bidalitako eskaerak, oinarri orokorretako 5. artikuluan eskaturiko dokumentazioaz gain, honako hauek izan beharko dituzte:

- 1. Dokumentua: Proiektuen balorazioa egiteko informazio garrantzitsua. (INFORMAZIO GARRANTZITSUA). Oinarri espezifikoko hauen A-eranskinean dagoen ereduaren arabera aurkeztu beharko dute agiri hori.

Oinarri Orokorren 6. artikuluan ezarritako bideetatik eta zehaztutako formatu digitaletan aurkeztuko dituzte eskabidea eta harekin batera aurkezten dituzten agiriak.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa

1.- Ematen den diru dirulaguntza ez da, inolaz ere, izango diruz lagundutako proiektuak eta aktibitateak egitea kostatzen denaren %80 baino handiagoa. Beraz, dirulaguntza hori jasotzen duen entitateak diru ekarpen bat egin beharko du, nahitaez, edo finantzaketaren parte bat bere gain hartu: diruz lagundutako

2. Entidades beneficiarias

Podrán solicitar las ayudas objeto de la presente convocatoria las asociaciones y entidades privadas sin ánimo de lucro legalmente constituidas que tengan su sede o delegación y marco de actuación en San Sebastián, cuyos fines, de acuerdo con lo previsto en sus estatutos sociales, estén en consonancia con los objetos de subvención descritos en el apartado primero de la base específica primera, siempre y cuando los procedimientos utilizados para alcanzarlos sean exclusivamente pacíficos y democráticos.

3. Solicitudes

Las instancias de solicitud se ajustarán a lo dispuesto en los artículos 4 y 5 de las bases generales de esta convocatoria.

Además de la documentación solicitada en artículo 5 de las bases generales de la convocatoria, las solicitudes dirigidas a esta línea de subvención deberán incluir:

- Documento 1: Información relevante para valorar los proyectos. (INFORMACIÓN RELEVANTE). Este documento deberá presentarse conforme al modelo que se adjunta como anexo-A a las presentes Bases Específicas.

La solicitud y la documentación de la que se acompaña se presentará a través de los canales y en los formatos digitales establecidos en el artículo 6 de las Bases generales.

4. Cuantía de la subvención

1.- La subvención que se conceda en ningún caso podrá superar el 80% del coste total de los proyectos y actividades subvencionadas. Por lo tanto, será necesario que la entidad beneficiaria efectúe una aportación económica o cuente con una cofinanciación

proiektuak eta aktibitateak egitea kostatzen denaren %20 gutxienez.

Eskatutako gutxieneko kofinantzaketa kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko Donostiako Udalak proiektu bererako emandako beste dirulaguntza edo laguntzarik.

Hasierako aurrekontuan agertuz gero entitateak berak ehunekoren bat finantzatuko duela, ehuneko horri eutsi beharko zaio gutxienez azken justifikazioan, eta egin beharreko doikuntzak egiteko erabiliko da.

2.- Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen proiektu edo jardueraren aurrekontu banakatu eta zehaztuan agertzen direnak eta zalantzarik gabe hura gauzatzeari lotuak daudenak. dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko orduan, azkenean onartu den diruz laguntzeko moduko gastua hartuko da kontuan.

Gehienez ere, gastu zuzen diruz lagungarriaren %10 erabili ahal izango da proiektuaren gauzatzearekin, harremana duten administrazio eta funtzionamendu gastuetarako.

Portzentaia hori dirulaguntza eskaeraren aurrekontuan eta zuriketan agertu beharko da oroharreko zenbateko bezala, eta ez dira xehekatu beharko administrazio eta funtzionamenduarekin lotutako gastu mota ezberdinak.

Diruz lagungarria den portzentaia hori ez da faktura edo gastu egiaztagirien bidez zuritu beharko.

Gastu zuzen bezala kontuan hartuko dira entitate eskatzaileari langileak kontratatzearen ondorioz sortutako gastuak, proiektua azaltzeko oroitidazkian kontratazioa proiektua gauzatzeko beharrezkoak direla justifikatuz gero.

3.- Diruz lagundutako jarduerarekin ateratako dirua diruz lagundutako proiektuan erabili beharko da.

mínima del 20% del coste total del proyecto.

Para el cálculo de la cofinanciación mínima requerida no se tendrán en cuenta otras subvenciones o ayudas concedidas por el Ayuntamiento de San Sebastián para el mismo proyecto.

El porcentaje de financiación propia que pudiera aparecer en el presupuesto inicial habrá de mantenerse, como mínimo, en la justificación final y será el que se aplique para el reajuste, en su caso.

2.- Los gastos subvencionables serán los que aparezcan recogidos en el presupuesto desglosado y detallado del proyecto o actividad que presente la entidad solicitante y que estén vinculados de manera indubitada al desarrollo de la misma. El gasto subvencionable finalmente aprobado será el que se tomará en consideración para la determinación de la subvención.

Podrá dedicarse hasta un máximo del 10% del gasto directo subvencionable a los gastos de administración y funcionamiento asociados a la ejecución del proyecto.

Dicho porcentaje deberá incluirse en el presupuesto presentado en la solicitud y en la justificación económica como una cantidad a tanto alzado sin desglosar los distintos tipos de gastos de administración y funcionamiento.

Dicho porcentaje de gasto subvencionable no requerirá de justificación mediante facturas o justificante de gastos.

Podrán subvencionarse como gastos directos, los gastos derivados de la contratación de personal por parte de la entidad solicitante siempre y cuando en la memoria explicativa del proyecto se justifique la necesidad de dicha contratación para la ejecución del proyecto.

3.- Los ingresos generados por la actividad subvencionada habrán de destinarse al proyecto subvencionado.

4.- Eranskin bakoitzean, gehienez proiektu bat lagundu ahal izango da diruz erakunde bakoitzeko. Proiektu bat baino gehiago aurkeztuz gero, bat aukeratzeko eta gainerakoei uko egiteko eskatuko zaio.

5. - Gehienez ere, 3.000 euro jaso ditu proiektu bakoitzak.

5. Eskaerak baloratzea

Dirulaguntza emateko eta zenbatekoa erabakitzeke honako alderdi hauek balioetsiko dira:

1.- Entitate eskatzaileari dagokionez. Erakundearen gaitasuna eta kaudimena, aurkeztutako proiektua arrakastaz garatzeko.

1.1. Erakundearen esperientzia kontrastatua jarduera edo proiektua gauzatzeko den esparruan eta erakundearen ibilbidea, egonkortasuna eta iraupena: 10 puntu.

1.2. Gaitasuna eta prestutasuna lankidetzarako eta koordinatuta lan egiteko tokiko, estatuko eta nazioarteko beste entitate batzuekin (elkarte, erakunde eta instituzioekin): 3 puntu.

1.3. Erakundeak hirian duen txertatze maila eta hiriarekin eta Udalarekin duen lotura, batez ere Giza Eskubideen Bulegoarekin: 12 puntu.

2.- Jardueran edo ekintzan:

2.1. Proiektuaren formulazioa bere atal guztietan eta ekintzaren justifikazioaren, adierazitako helburuen, proposatutako jardueren, antolakuntza eta funtzionamenduaren, beharrezko baliabideen, espero diren emaitzen arteko koherentzia eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak: 17 puntu.

2.2. Tokiko, estatuko eta nazioarteko beste entitate batzuen proiektuan parte hartzea (elkarte, erakunde eta instituzioak) eta proiektua finantzatzeko beste diru iturri batzuk egotea, pribatuak edo beste erakunde batzuetakoak: 10 puntu.

4.- En cada uno de los anexos, se podrá subvencionar como máximo un proyecto por entidad. En el caso de que presente más de un proyecto, se le requerirá para que elija uno y renuncie el resto.

5. El importe máximo de subvención fijado por proyecto es de 3.000 euros.

5. Valoración de las solicitudes

Para la concesión de la subvención y la determinación de su importe se valorarán los siguientes aspectos:

1.- En la entidad solicitante. La capacidad y solvencia de la entidad para acometer con éxito el proyecto presentado.

1.1. Experiencia contrastada de la entidad en el ámbito en el que se vaya a desarrollar la actividad o el proyecto y su trayectoria, estabilidad y permanencia en el tiempo: 10 puntos.

1.2. Capacidad y disposición para colaborar y trabajar de forma coordinada con otras entidades (asociaciones, organismos e instituciones) locales, estatales e internacionales: 3 puntos.

1.3. Grado de implantación de la entidad en la ciudad y su vinculación con la ciudad, y con el Ayuntamiento de San Sebastián, en especial con su Negociado de Derechos Humanos: 12 puntos.

2.- En el proyecto o actividad:

2.1. La formulación del proyecto en todos sus apartados y la coherencia entre la justificación de la acción, los objetivos trazados, las actividades propuestas, la organización y funcionamiento, los recursos necesarios, los resultados que se espera obtener y las medidas de seguimiento y evaluación previstas: 17 puntos.

2.2. La participación en el proyecto de otras entidades (asociaciones, organismos e instituciones) locales, estatales e internacionales y la existencia de otras fuentes de financiación por parte de otros organismos públicos o entidades privadas: 10 puntos.

2.3. Erakundearen borondatea proiektuari segida emateko edo eta lehenago ere gauzatu izana edo aurreko beste proiektu batzuen osagarri edo jarraipena izatea: 5 puntu.

2.4. Proiektuaren edo ekintzaren jarraipena egiteko eta emaitzak ebaluatzeko sistema bat egotea, adierazleak AE-ETa bestelako segimendu eta ebaluazio mekanismo eta tresnak dituen: 5 puntu.

2.5. Proiektuaren edo jardueraren gizarte egokitasuna edo interesa; jardueraren eragina jasoko duen pertsona kopurua eta lehenetasuna zuzentzen den kolektiboarekiko: 12 puntu.

2.6. Proiektuaren prestakuntza eta garapenean, proiektuaren xede den kolektiboaren parte-hartze aktiboa aurreikusi eta bultzatzea: 4 puntu.

2.7. Proiektuan barneratua egotea bake kulturaren eta giza eskubideen aldeko balioak, jarrerak eta jokabideak. Balorazioak kontuan izango du proiektuak lehen aipaturiko horiek helburuko beharren detekzioan eta justifikazioan jasotzea, bai eta planteatzen dituen helburu eta jardueretan zein lortu nahi dituen emaitzetan kontuan hartzea ere. Eta proiektuak balio horiek sustatu eta zabaltzeko duen gaitasuna ere neurtzekoa da: 10 puntu.

2.8. Genero ikuspegia proiektuaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan xertatzea, 10 puntu arte:

2.8.1. Elkarrekin erabaki gune eta ardura postuetan emakumeen presentzia areagotzea:

- Elkarteko lehendakaria emakumea izateagatik – puntu 1
- Elkarteko zuzendaritza batzordean gutxienez %40a emakumeak izateagatik – puntu 1

2.8.2. Berdintasunerako tresnak

2.3. La voluntad por parte de la entidad organizadora de dar continuidad al proyecto y/o que el proyecto se haya realizado en otras ocasiones con anterioridad o sea continuación o complemento de proyectos realizados anteriormente: 5 puntos.

2.4. La existencia de un sistema de seguimiento y evaluación de los resultados del proyecto o actividad que incluya indicadores y otros mecanismos e instrumentos de seguimiento y evaluación: 5 puntos.

2.5. La oportunidad y/o el interés social del proyecto o actividad; el número de personas sobre las que se proyectará la actividad y la prioridad del colectivo al que se dirige: 12 puntos.

2.6. Que el proyecto contemple y favorezca la participación activa del colectivo al que se dirige en su preparación y desarrollo: 4 puntos.

2.7. La introducción en el proyecto de valores, actitudes y comportamientos de una cultura de paz y de los derechos humanos. Se valora que el proyecto los contemple en la detección y justificación de las necesidades que se quieren cubrir, en los objetivos y actividades que plantea y en los resultados que pretende obtener. Y se valora la capacidad del proyecto para promover y difundir esos valores: 10 puntos.

2.8. Incorporación de la perspectiva de género en el diseño, desarrollo y evaluación del proyecto, 10 puntos max.

2.8.1. Incrementar la presencia de mujeres en los puestos de decisión y responsabilidad en las asociaciones:

- Si la persona que ostenta la presidencia de la asociación es mujer – 1 punto
- Si la junta directiva de la asociación está formada por al menos un 40% de mujeres – 1 punto

2.8.2. Acceso a herramientas de

eskuratzea:

- Proiektuaren kudeaketan berdintasunari buruzko prestakuntza duten pertsonak gehitzeagatik, bai 2024. eta 2025. urteetan udalak eskainitakoa, bai berdintasunean aditua den beste entitate batek eskeinitakoa - puntu 1
- Proiektuaren kudeaketan berdintasunaren arloan ibilbidea duten pertsonak gehitzeagatik. Hori egiaztatzeko, azalpen-memoria bat aurkeztu behar da, berdintasunaren arloan egindako jarduera eta lan garrantzitsuenak adieraziz - puntu 1

2.8.3. Proiektuetan berdintasun ikuspegia txertatzea:

- Proiektuaren helburuen artean, genero-ikuspegia sustatzen duten helburuak berariaz jasotzea – 2 puntu
- Proiektuan genero-ikuspuntua txertatzen du, aurreikusitako jardueretan berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko metodo eta prozedurak aurreikusten ditu, horretarako neurri zehatzak zehaztuz eta garatuz. – 3 puntu
- Proiektuan parte hartzen duten pertsonen familia, lana eta norberaren bizitza uztartzeko edota zaintzen erantzukizuna jarduerekin uztartzeko neurriak jasotzea. – puntu 1

2.9. Egin behar den proiektua edo jarduera originala izatea eta Donostian antzeko programarik edo jarduerarik ez izatea: 2 puntu.

Puntu honetan adierazitako alderdiak baloratzeko, elkarteek eta entitateek eskabidearen web inprimakian jasotzen duten informazioa eta "1. Dokumentuan: Proiektuak baloratzeko informazio garrantzitsua" erabiliko dira. Baita eransten duten beste edozein informazioa ere.

Proiektu bakoitzak jasotako hasierako puntuazioa ponderatuko da puntu gehien jaso dituen proiektuarekiko, ondorengo formularen

igualdad:

- Por incorporar a la gestión del proyecto personas con formación específica en igualdad, tanto la ofertada por el Ayuntamiento en los años 2024 y 2025, como otra formación impartida por entidades expertas en igualdad -1 punto
- Por incorporar a la gestión del proyecto personas con trayectoria en materia de igualdad, acreditada mediante la presentación de una memoria explicativa indicando las actuaciones y trabajos más relevantes realizados en materia específica de igualdad - 1 punto

2.8.3. Integrar la perspectiva de igualdad en los proyectos:

- La inclusión en el proyecto de objetivos dirigidos expresamente a promover la perspectiva de género – 2 puntos
- Incorpora la perspectiva de género en el proyecto, previendo métodos y procedimientos para promover la igualdad y eliminar desigualdades entre mujeres y hombres en las actividades previstas, definiendo y desarrollando medidas concretas para ello. – 3 puntos
- Inclusión de medidas para la conciliación entre las actividades y las responsabilidades de cuidados y la conciliación de la vida familiar, laboral y personal de las personas participantes en el proyecto – 1 punto

2.9. La originalidad del proyecto o actividad a desarrollar y la inexistencia de proyectos o actividades similares en nuestro entorno: 2 puntos.

La valoración de los aspectos señalados en este punto se hará en base a la información que incluyan las asociaciones y entidades en el formulario web de solicitud, además del "Documento 1: Información relevante para valorar los proyectos". Así como cualquier otra información que aporten.

Los puntos iniciales obtenidos por cada proyecto se ponderarán respecto al proyecto de mayor puntuación en función de la

arabera, eta horrela azkeneko puntuazioa lortuko da.

Jp

$$Ap = \frac{Gp}{Jp} \times Jp$$

Gp

non:

Ap= azkeneko puntuazioa

Jp= jasotako hasierako puntuak

Gp= puntu gehien jaso dituen proiektuaren puntuazioa

Puntu bakoitzaren balioa eragiketa hau eginda aterako da: aurrekontua guztira zati diruz laguntzeko moduko proiektu guztiei emandako azkeneko puntuazioaren batuketara.

Proiektu bakoitzari emandako azkeneko puntu kopurua puntu bakoitzaren balioaz biderkatuta aterako da dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa.

Hainbanaketa egin ondoren, proiektu bati dagokion dirulaguntza haren aurrekontuaren % 80 baino gehiago bada, 3.000 euro baino gehiago edo eskatutako dirulaguntza baino handiagoa bada, gelditzen den kopurua berriz hainbanatuko da gainerako eskaeren artean. Behin eta berriz gauza bera gertatzen bada, berdin jokatu da dirulaguntza eskaera guztiei erantzun arte.

Egitasmoak gutxienez 45 puntu jaso beharko ditu hasierako puntuazioan diruz lagundu ahal izateko.

6. Izapidetzea

Eskaerak Giza Eskubideen Bulegoko teknikari batek izapidetuko ditu.

Oinarri orokorretako 9. artikulua aipatzen duen Balorazio Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

-Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren burua.

siguiente fórmula, obteniendo así la puntuación final.

Po

$$Pf = \frac{Pmax}{Po} \times Po$$

Pmax

donde:

Pf= puntuación final

Po= puntuación inicial obtenida

Pmax= puntos del proyecto de mayor puntuación

El valor del punto se fijará dividiendo el total de presupuesto entre la suma de los puntos finales de cada proyecto.

Los puntos finales obtenidos por cada proyecto multiplicados por el valor del punto determinará la cuantía de la subvención otorgada.

Si, una vez realizado este prorrateo, la subvención que correspondiese a un proyecto fuera superior al 80% de su presupuesto, superior a 3.000 euros o fuera mayor que la subvención solicitada, el importe sobrante será nuevamente prorrateado entre los restantes proyectos de subvención. De producirse nueva y sucesivamente este supuesto, se actuará de la misma manera hasta cubrir todas las subvenciones.

Para ser susceptible de concesión de subvención, el proyecto presentado por la entidad deberá de obtener una puntuación mínima inicial de 45 puntos.

6. Instrucción

La instrucción de las solicitudes corresponderá a un/a técnico/a del Negociado de Derechos Humanos.

La Comisión de Valoración a la que se refiere el artículo 9 de las bases generales estará compuesta por:

-El Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social.

-Berdintasuna, Lankidetzeta, Giza Eskubideak eta Kultur Aniztasuneko Atalaren burua.

-Giza Eskubideen Bulegoko teknikari bat.

-La Jefa de la Sección de Cooperación, Derecho Humanos y Diversidad Cultural.

-Un/a Técnico/a del Negociado de Derechos Humanos.

Eskaerak aztertzerakoan, organo instrukzio egileak eskatzaileei dei egin diezaieke, beharrezkotzat jotzen dituen argibide guztiak lortzeko.

En el proceso de análisis de las solicitudes, el órgano instructor podrá solicitar la audiencia de las entidades solicitantes al efecto de recabar toda aquella información que considere necesaria.

7. Ebazpena

Donostiako udaleko Tokiko Gobernu Batzordea da prozedura hori ebazteko eskumena duen organoa.

7. Resolución

El órgano competente para resolver el procedimiento es la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián.

8. Ordaintzea

-Izendatutako kuantitatearen %70a eskumena duen organoak ematea onartzen duen unean.

-%30a dirulaguntza justifikatzeko eskaturiko dokumentuak aurkeztu eta ontzat jo ondoren, oinarri orokorretako 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, teknikariek baloratutakoan.

8. Abono

-Un 70% de la cantidad concedida, en el momento de la aprobación de la concesión por el órgano competente.

-Un 30% una vez presentados y validados los documentos exigidos para la justificación de la subvención en los términos establecidos en el artículo 16 de las bases generales y realizada la valoración técnica correspondiente.

9. Dirulaguntza zertan erabili den justifikatzea

Dirulaguntzaren zuriketa aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa deialdi honen oinarri orokorretako 16. artikuluan jasotakoak izango dira.

Deialdiaren 16 artikulua aipatzen duen dirulaguntzen xede diren jarduerak azaltzeko txostenak gutxienez jaso beharko ditu gauzatutako proiektuaren deskribapen orokorra eta eskaeran zehaztutako helburuak lortzeko gauzatutako jardueren azalpena, zehaztuz data, lekua, proiektua garatu den modua (antolakuntza, funtzionamendua, metodologia...) eta erabilitako giza eta material baliabideak.

9. Justificación del destino de la subvención

El plazo de presentación de la justificación de las subvenciones y la documentación a presentar será la establecida en el artículo 16 de las bases generales de esta convocatoria.

La memoria explicativa de las actividades objeto de la subvención a la que se refiere el artículo 16 de las bases generales de la convocatoria deberá contener, al menos, una descripción general del proyecto realizado y de las actividades que se han llevado cabo para alcanzar los objetivos establecidos en la solicitud, especificando la fecha, el lugar en el que se realizaron, la forma en la que se ha desarrollado el proyecto (organización, funcionamiento, metodología, etc.) y los recursos humanos, técnicos y materiales empleados.

Proiektuak erdietsitako emaitzen azalpena eta balorazioa beharrezkoa izango da, gizartean eta parte hartu duten pertsonengan izandako eragina eta sortu diren intereseko produktuak. Onuradun izan diren pertsonen kolektiboaren deskribapena eta parte hartu duen pertsona kopurua ere jaso beharko du.

Goian aipatutako alderdiekin lotuta, dirulaguntza eskaeran aurreikusitakoaren eta gauzatutakoaren arteko ezberdintasunak aipatu beharko dira, ezarritako helburuak bete ote diren eta zein neurritan bete diren zehaztuaz.

Oinarri Orokorren 6. artikuluan ezarritako bideetatik eta zehaztutako formatu digitaletan aurkeztuko dituzte justifikazioa eta harekin batera aurkezten dituzten agiriak

10. Aurrekontua

Udalak deialdi honetan sartutako proiektu eta ekintzak diruz laguntzeko, guztira, 50.240 euro erabiliko ditu; Horietatik, 39.855 euro 6.1 eranskinetako eskaerei erantzuteko erabiliko dira eta 10.385 euro 6.2 eranskinetako eskaerei erantzuteko.

Eranskinetako bati dagozkion dirulaguntzak emateko proposamena egin ondoren soberakinik badago, soberakin hori beste eranskinari dagozkion dirulaguntzak emateko xedaturiko zenbatekoari gehitu ahal izango zaio.

A-Eranskina.- PROIEKTUAK BALIOESTEKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Dokumentu honetan, hainbat informazio eskatzen da, webeko eskaera inprimakian eskatzen denaren osagarri. Informazio hori ezinbestekoa da zure dirulaguntza eskaera balioesteko.

ENTITATE ESKATZAILEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Deberá incluir también una descripción y una valoración de los resultados obtenidos por el proyecto, especificando su impacto en la sociedad en general y en las personas participantes y los productos de interés que se hayan podido generar. Deberá contener además una descripción del colectivo de personas beneficiarias del proyecto y el número de participantes.

Asimismo, y respecto a los distintos aspectos que se señalan más arriba deberá señalar y justificar las diferencias entre lo previsto inicialmente en la solicitud de subvención y lo realizado finalmente, indicando si se han alcanzado los objetivos previstos y en que medida.

La justificación y la documentación de la que se acompaña se presentará a través de los canales y en los formatos digitales establecidos en el artículo 6 de las Bases generales.

10. Presupuesto

El importe total destinado por el Ayuntamiento para subvencionar los proyectos y actividades incluidos en esta convocatoria es de 50.240 euros; de los cuales 39.855 euros se destinarán a atender las solicitudes del anexo 6.1 y 10.385 euros a atender las solicitudes del anexo 6.2.

En el caso de que una vez elaborada la propuesta de concesión de las subvenciones correspondientes a uno de los anexos, existiera un remanente, éste podría acrecer el importe previsto para atender las subvenciones correspondientes al otro anexo.

Anexo-A.- INFORMACIÓN RELEVANTE PARA VALORAR LOS PROYECTOS

La información que le solicitamos a través de este documento es complementaria a la que solicita el formulario web de solicitud e indispensable para valorar su solicitud de subvención.

INFORMACIÓN SOBRE LA ENTIDAD SOLICITANTE

Entitatearen izena:

Nombre de la entidad:

Entitatearen eratze data:

Fecha de constitución de la entidad:

Entitate/elkarteen erregistroko inskripzio data:

Fecha de inscripción en el registro de entidades / asociaciones:

Erregistroaren izena:

Nombre de Registro:

Erregistro zenbakia:

Número del registro:

ALDERDI HAUEK BALIOESTEKO

PARA VALORAR ESTOS ÁMBITOS

1.- Entitateak zer esperientzia duen eta zer ibilbide egin duen dirulaguntzaren xede den proiektuari dagokion esparruan, egonkortasunik izan duen eta zenbat denboran aritu den horretan, eta zer ahalmen eta prestasun izan duen tokiko, estatuko eta nazioarteko beste entitate batzuekin (elkartek, erakundeak eta instituzioak) lankidetzan aritzeko eta haiekin koordinatuta lan egiteko.

1.- Para valorar la experiencia y trayectoria de la entidad en el ámbito en el que se vaya a desarrollar el proyecto para el que se solicita la subvención, su estabilidad y permanencia en el tiempo y su capacidad y disposición para colaborar y trabajar de forma coordinada con otras entidades (asociaciones, organismos e instituciones) locales, estatales e internacionales:

1.1.- Adierazi zer proiektu garatu dituen entitateak diruz laguntzeko eskatu duen proiektuari dagokion esparruan. Zehaztu zer urtetan eta zer udalerritan egin den proiektua eta zer entitatek lagundu duten. Gehienez, hamar proiektu balioetsiko dira.

1.1.- Indicar los proyectos desarrollados por la entidad con anterioridad en el ámbito en el que se desarrolla el proyecto para el que solicita subvención. Especificar el año y el municipio en el que llevó a cabo el proyecto y las entidades que colaboraron. Se valorarán hasta 10 proyectos

1.2.- Azaldu, labur-labur, zer ibilbide egin duen entitateak diruz laguntzeko eskatu duen proiektuaren esparruan, eta adierazi tokiko, estatuko eta nazioarteko zer entitaterekin (elkartek, erakundeak eta instituzioak) aritzen den edo aritu den elkarlanean bere ibilbidean zehar. Azaldu, labur-labur, zer eratako eta zer mailatako lankidetzan izan den.

1.2.- Resumir la trayectoria de la entidad en el ámbito en el que se vaya a desarrollar el proyecto para el que se solicita subvención y señalar las entidades (asociaciones, organismos e instituciones) locales, estatales e internacionales con las que la entidad solicitante colabora o ha colaborado a lo largo de su trayectoria y describir brevemente el tipo y grado de colaboración

2.- Entitatea zenbateraino ezarrita dagoen eta zenbaterainoko lotura duen Donostiarekin eta Udalarekin, bereziki Giza Eskubideen Bulegoarekin.

2.- Para valorar la implantación y vinculación de la entidad con la ciudad de San Sebastián y con el Ayuntamiento, en especial con su Negociado de Derechos Humanos:

2.1.- Entitateak bere egoitza soziala Donostian ez badu, adierazi Donostian ordezkari eta edo azpiegoitzarik baduen ala ez, eta, baldin badu, zehaztu helbidea.

2.1.- Si la entidad no tiene su sede social en San Sebastián, señalar si cuenta o no con una delegación o subsede en San Sebastián y en caso afirmativo, especificar su dirección.

2.2.- Hautatu egoera hauetatik entitate eskatzaileari dagokiona:

2.2.- Seleccione una de estas situaciones en las que se encuentra la entidad solicitante:

- Entitateak ez du egoitzarik, azpiegoitzarik edo ordezkartzarik Donostian eta aldizka garatzen ditu jarduerak hirian.

- Entitateak ez du egoitzarik, azpiegoitzarik edo ordezkartzarik Donostian, baina jardueretako asko garatzen ditu hirian.

- Entitateak ez du egoitzarik, azpiegoitzarik edo ordezkartzarik Donostian eta jarduerak bere hirian garatzen ditu.

- Beste egoera bat. Azaldu, labur-labur, zure egoera.

2.3.- Adierazi entitateak zenbat bazkide dituen Donostian, sexuaren arabera banatuta (gizonak, emakumeak, beste genero bat)

- La entidad no tiene la sede, subsede o delegación en San Sebastián y desarrolla actividades en la ciudad puntualmente

- La entidad no tiene la sede, subsede o delegación en San Sebastián pero desarrolla una parte importante de su actividad en la ciudad

- La entidad tiene la sede, subsede o delegación en San Sebastián y desarrolla en la ciudad su actividad

- Otra situación. Describir brevemente su situación

2.3.- Indicar el número de personas asociadas con que cuenta la entidad en San Sebastián desagregado por sexo (hombres, mujeres, más géneros)

DIRUZ LAGUNTZEKO ESKATU DEN PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

3.- Nola parte hartzen duten proiektuan tokiko, estatuko eta nazioarteko beste entitate batzuek (elkartek, erakundeak eta instituzioak).

3.1.- Tokiko, estatuko eta nazioarteko beste entitate batzuek (elkartek, erakundeak eta instituzioak) proiektuan parte hartzen badute, azaldu, labur-labur, zertan datzan parte hartze hori.

4.- Entitate antolatzaileak proiektuari jarraipena eman nahi dion edo proiektua aurretik beste batzuetan egin den edo aurrez egindako proiektuen jarraipena edo osagarria den.

4.1.- Entitate antolatzaileak proiektuari jarraipena eman nahi badio, azaldu labur-labur.

4.2.- Proiektua lehenago egin bada edo lehendik egindako beste baten jarraipena edo osagarria bada, azaldu labur-labur.

5.- Proiektua egokia den eta interes sozialik baduen, jarduera zenbat pertsonarentzat proiektatuko den eta zer talderi zuzenduko zaion.

INFORMACIÓN SOBRE EL PROYECTO PARA EL QUE SOLICITA SUBVENCIÓN

3.- Para valorar la participación en el proyecto de otras entidades (asociaciones, organismos e instituciones) locales, estatales e internacionales:

3.1.- Si participan en el proyecto otras entidades (asociaciones, organismos e instituciones) locales, estatales e internacionales, describir brevemente en que consiste la participación

4.- Para valorar la voluntad por parte de la entidad organizadora de dar continuidad al proyecto y/o que el proyecto se haya realizado en otras ocasiones con anterioridad o sea continuación o complemento de proyectos realizados anteriormente:

4.1.- Si hay voluntad por parte de la entidad organizadora de dar continuidad al proyecto, explicarla brevemente

4.2.- Si el proyecto se ha realizado en otras ocasiones con anterioridad o es continuación o complemento de otro realizado con anterioridad, explicarlo brevemente

5.- Para valorar la oportunidad e interés social del proyecto; el número de personas sobre las que se proyectará la actividad y la prioridad del colectivo al

5.1.- Proiektua une honetan gauzatzea bereziki egokia bada, azaldu labur-labur zergatik.

6.- Proiektuaren xede den kolektiboaren inplikazioa/parte-hartzea baloratzeko.

6.1.- Deskribatu nola aurreikusten eta bultzatzen duen proiektuak parte-hartzea

7.- Nola sartu diren bakearen eta giza eskubideen kulturaren inguruko balioak, jarrerak eta portaerak proiektuan (bete nahi diren beharren detekzioan eta justifikazioan, planteatzen dituen helburu eta jardueretan eta lortu nahi dituen emaitzetan). Berdin balioetsiko da hala balio horiek kontuan izatea nola sustatzea eta zabaltzea.

7.1.- Azaldu nola jasotzen dituen proiektuak bakearen eta giza eskubideen kulturaren inguruko balioak, jarrerak eta portaerak bete nahi diren beharren detekzio eta justifikazioan, planteatzen dituen helburu eta jardueretan eta lortu nahi dituen emaitzetan.

8.- Garatu beharreko proiektua edo jarduera originala dela edo gure inguruan ez dagoela antzeko proiekturik.

8.1.- Azaldu proiektua originala dela edo gure inguruan ez dagoela antzeko proiekturik.

9.- Garatu beharreko proiektua edo jarduera originala dela edo gure inguruan ez dagoela antzeko proiekturik.

9.1.- Azaldu proiektua originala dela edo gure inguruan ez dagoela antzeko proiekturik.

que se dirige:

5.1.- Si es especialmente oportuno que el proyecto se lleve a cabo en este momento, explicar brevemente los motivos

6.- Para valorar la implicación/participación en el proyecto del colectivo al que se dirige.

6.1.- Describir como contempla y favorece el proyecto la participación del colectivo al que se dirige.

7.- Para valorar la introducción en el proyecto (en la detección y justificación de las necesidades que se quieren cubrir, en los objetivos y actividades que plantea y en los resultados que pretende obtener) de valores, actitudes y comportamientos de una cultura de paz y de los derechos humanos. Se valora tanto que los contemple como su capacidad para promover y difundir esos valores:

7.1.- Describe cómo el proyecto contempla, en la detección y justificación de las necesidades que se quieren cubrir, en los objetivos y actividades que plantea y en los resultados que pretende obtener, valores, actitudes y comportamientos de una cultura de paz y de los derechos humanos

8.- Para valorar la originalidad del proyecto o actividad a desarrollar y/o la inexistencia de proyectos similares en nuestro entorno:

8.1.- Describe la originalidad del proyecto y/o la inexistencia de proyectos similares en nuestro entorno

9.- Para valorar la originalidad del proyecto o actividad a desarrollar y/o la inexistencia de proyectos similares en nuestro entorno:

9.1.- Describe la originalidad del proyecto y/o la inexistencia de proyectos similares en nuestro entorno